



triptiko italiarra
EDORTA JIMENEZ



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

EDORTA JIMENEZ

triptiko italiarra

edizioa:

Unai Begiristain Goiburu

Il giardino di Alice

Zinismoaz

Goiz itzartuta nago, 'Il giardino di Alice'¹ delakoan. Lekuaren izena zelan idazten den begiratzeko ohetik jaiki behar izan dut. Sarrerako atearen ondoko armairu txikitik eskuko triptikoa harturik ohera itzuli naiz. Triptikoak Blaise Pascal delako baten aipua dakar:

"Tutti i mali degli uomini derivano da una sola ragione: non sono capaci di starsene in una camera a riposar"².

Kanpoan, zakurren zaunkek neurtzen dituzte distantziak. Eguzkiak lurrun urrun bihurtzen duen laino batek baso-multzoak bata bestetik bereizten ditu, astiro. Zaunkekin batera xerra-makinaren eta mailuaren hotsak dira goiz honetan. Jabeak bere zakur, zakurrak bere etxe, horiek elkar zaindu behar. Begiez ikusi barik ere imajinatzen ari naiz bart ilunetan hona etorri nintzen leku hau. Txaletak, etxe familia bakarreak, hesiak, hormak, landareak, baratzak, auto dotoreak; bizi maila. Eta ate denek zakur bana.

Zakur subespezieak zaintzen ditu aberatsak, baita pobreak ere.

Multzo bien artean simetria zehatza dagoela etorri zait burura. Zakurrak dira horretan ardatza. Txalet jabeen zakurrak eta kaleko eskekoen zakurrak. Azkenok gehienetan txikiak izaten dira; mandoak berriz beste haienak. Edo hemengoak. Italiako inguru honetakoak. "Il giardino di Alice" hau Italian dago-eta. Zakurren zaunkei dagokien aldetik beste edonon ere berdin-berdin egon zitekeen, ostera.

Zaunkak ez diren beste hotsek gogora ekarri, gure auzokideen portaera dakarkidate; mailuarenak eta xerra makinaren hotsek. Zapatua da. Asteburua. Brikolaje apur bat egiteko tenorea. Bestela bai. Bestela isiltasuna dago hemen. 'Il giardino di Alice' honek saltzen duena, hain zuzen.

Lehenengoan supermerkatuaren aurrean eskean ziharduen gizona datorkit. Umoretsu, zerbait emateko eskatu zidan. Erdaraz mintzatu arren, erreguaren azkenean mutil esan zuen. Harriturik nentorren ni kanporantz, kutzako langileak kobratu zidana eta aldean neramanaren prezioa bat ez zetozela pentsatzen. Kutzazainak, behar baino gutxiago kobratu zidan. Segundo laurden batez atzera egitekotan izan nintzen.

"Zenbatetan ez ote diaten kontrakoa egin, kokolo hori!", pentsatu nuen. Behingoan. Orgatila bere lekuan uztean euro ziztrin bat neukan esku batean, eta poltsa bi jatekoz eta edatekoz beteak bestean. Euroa ateko eskalari eman nion. Pozak begietara egin zion, lazunek ur-azalera ogi apurren bila egiten dutena baino bizkorrago. Bere poza nire poz, galde egiten ausartu nintzen.

- No vivirás solo de esto³.

Zintzo esanda, galdera hori halakoak ikusten ditudan gehienetan etortzen zait. Ze, polizia mozorrotua bada? Madrilako DGS hartan ikusi nituen mozorroak ezin erabat ahaztu nik.

- A veces trabajamos en el puerto. Los fines de semana. El otro fin de semana mi colega y yo sacamos⁴...

¹ Alizeren lorategia

² Gizakien gaitz guztiak arrazoi bakar batek eraginda datoz; ez gara gai gela batean atsedenean egoteko.

³ Ez zara honetatik bakarrik biziko.

⁴ Batzuetan, portuan lan egiten dugu. Asteburuetan. Aurreko asteburuan nire lagunak eta biok atera genituen...

Zenbat atera zuten esan zidan. Ehun ala berrehun euro, ez dut gorde gogoan. Asteburuak portuan. Beste inork nahi ez duenean, halakoak lanean. Banindoan nire poltsa biekin, besotik heldu zidanean.

- ¿Sabes? Soy gruista⁵.

Hitza –gruista– garunetako autobidean bere joanean geldiarazi, hitzari atzera etorri eragin, eta berriro kontrol-neuronen iragazgailuaz pasatu nuen hitza.

- Gruista. Garabizalea. Garailaria.

Begira lotu nintzaion.

- Hasta hace dos meses tenía trabajo⁶.

Hark, nik poltsak eskuetan pisu egiten nituela jakin arren, begietara zein gertutik begiratzen zidan, eusteko gai ote nintzen galdetuz bezala begiratu ere, banekien ez ninduen erraz joaten utziko. Ez behintzat aitormenen sokaz ni une batez tenteago bertan lotuta eduki barik.

Lana Araban zela, eta lekuaren izena ere esan zidan. Datu zehatzak. Mozorrotua izateko, zehatzegiak. Frogagarriak, hurbilekoak ziren aldetik. Handik kasik hanka alde egitekotan izan nintzen. Sena! Baina berak beste karta bat zeukan gorderik. Eta ondo zekien haren balioa zein zen. Sen hutsez berak ere.

- Me echaron por ser seropositivo⁷.

Hara zein zen maukan gordetako karta handia. Ez handiena, ostera. Beste bat ere bazeukan.

- En los análisis de empresa me dio⁸.

Joskera euskaldun kutsukoaz esan zuen. Berari aldez aurretik inongo baimenik eskatu barik egin ei zizkioten. Análisiak. Horietan seropositiboa dela agertu, eta kalera!

Poltsa biak eskuetan lotsaren lotsaz pisuago egiten, ez nekien zer esan. Elkarri artez begira, ezkerreko begi ertzetik ezpainetara eta ezpainetarik berriro hara, gora eta behera zebilkion galdera multzoa gurutzegramak modukoa zen. Neuk erantzun beharreko gurutzegramak. Segundo batean:

Ezker-eskuin; zuzena ez dena: zuzengabekeria. Behetik gora; bidegabekeria eragiten duen sentimendua: amorrua. Eskuin-ezker; bidegabekeriez kalte egin digutenenean gura dena: mendekua. Minak eragiten duen oihua, bi bokal: oi.

⁵ Badakizu? Garabilaria naiz.

⁶ Orain bi hilabetera arte banuen lana.

⁷ Seropositibo izateagatik bota ninduten.

⁸ Enpresako analisisietan eman zidan.

Zuzengabekeria, amorrúa, mendekua, oi! Diskurtso oso bat zegoen haren aurpegi keinuan. Dantzan.

- Oi, bidegabekeria egin didatena, amorruren amorruez mendekua eskatzen duena. Ez ote dut kalean diru eskean ibiltzeko eskubiderik? –esan balit moduan izan zen.

- Badaukak, bai, amorraturik egoteko motiboa –hitzik gabe erantzun nion; keinu hutsez.

Buruko ilea motz, prakak nasai, aurreko batean hantxe bertan ikusia nuen eskalea ez ote zen lotu nintzen. “Irudi bion arteko aldeak bilatu” jokoan bezala, irudi bien arteko bereizgarriak igarri behar nituen. Bata eta bestearen itxuraren aldetik ez zen erraza. Lehenagoko hura, oraingoa bezala, azal eta hezur huts eginda, makar, halaxe zegoen. Hark aldean neska bat zuen, ostera. Neskak hitz parean esan zuen euskaraz –eskerrik asko–, horrexegatik dut gogoan. Mutilak orduan txalo egin zion. Hitz erdirik ere ez zekien beste hark euskaraz. Eta zakurtzua ere bazeukaten. Garailariak ez zeukana.

‘Il giardino di Alice’ honetan, hori dena etorri zait gogora eta, esaldi hau berau idazten hasi orduko, gizon hark kontatu zidana ipuina ez ote zen ere otu zait, bat-batean, galdera modura. Legenda urbana? Kaleko ipuina?

Kolegiotik irtetea Bilboko edozein kale-kantoitan zain izaten genituen eskeko haien ipuinak bezala.

- Kartzelatik irten berri nago!

Gure asaldadura. Lehenengoetan behintzat. Hura dena ipuin huts zela jabetu ginen arte. Baina zein ipuin ona, eta zein hitzun trebea eskekoa. Ipuina lehenengoz kontatu zidan eskekoa behinik behin. Kolegiotik irtetea zain izaten genituenak ez ziren karamelu pozonduak eskaintzekoak, ezta pederastak ere. Ipuin kontalariak ziren. Diru eskean.

Triptikoan begiratu dut non nagoen. ‘Il giardino di Alice’ hau A-26 autobidetik gertu dago. Autostrada Milano-Gravellona da A-26 hori. Hona iristeko irteera Arona da, edo bestela Meina.

Non nagoen jakingura aserik, triptikoan Blaise Pascalek berak dioena egiten nago; egon-egonean egon. Gero, lasaturik, ohean idazten izan naizelarik, leku honen jabeak etorri dira. Senar-emazteak. Zer moduz nagoen eta ezer behar dudak jakitera.

Espero izan ez dugun eguna argitu duela esan du gizonak. Dario da.

Tedeskoak arribatuak direla esan du emazteak. Camila da.

Terapeutak dira biak. Emaztea, ostera, lan horri utzita dago, giardanoko honetan egiteko. Idazlea ere bada. Gelan haren liburu argitaratu biak daude.

Modu delikatuan, gizalege zibilizatuan, Dario senarrak bazkalostean lakura joan nahi nukeen galdetu dit. Kanoan ibiltzera.

Baietz nik.

Eta bazkalordua? Hamabi eta erdietan ala ordu batean? Hortxe luzatu gara, gurean jateko orduak zeintzuk izaten diren eta halakoak aipatuz. Dena ondo.

Joan direnean lakura begira lotu naiz. Lekuak, gizonak, inguratsak, den-denak gogora filmaren bat dakarkidatela-eta, zein film ezin zehazturik nabil. Bart gauean ere halaxe etorri zitzaidan. Gizonaren airea Joseph Loseyren Mezularia filmeko aristokratarena da. Ala Chacal lehengo hartako hiltzailearena? Duda egin dut. Ingeles airea du, nolana ere. Honelako lekuak ezagutu behar dira, gero filmetarako halako gidoi-bilbeak asmatu ahal izateko.

Kolegiotik irtenda eskeko hark kontatu zidan ipuina. Kartzelatik irten berri zegoela, eta etxera joan behar zuela, Burgosera, eta gau hartan ostatu hartzeko dirua behar zuela.

Kartzela! Zenbat urte genituen guk? Hamalau? Ostiral iluntzetan etxera joateko libre uzten gintuzten. Eta ez ote nion emango diruren bat. Nik, berriz, autobusa har zezakeela erantzun, hain berandu ere ez dela eta. Autobusa? Horrek ere dirua edukitzea eskatzen du, eta dena dela autobuserako berandu dela. Nik ezin diodala inon ostatu hartzeko adina diru eman. Ba, zerbait jateko behintzat bai, ahalko niola eman. Horretara ailegaturik, haren kontraesanak garunetako labirintoan gurutzatzen dira. Hau dena gezurra da, ziur, harrapatu egin zaitu, ez dizu joaten utziko, zuk zeuk ere autobusa galduko duzu, neure buruari esaten. Alde egin nuen.

- Gaur irten dut kartzelatik! –berak oihu.

Bigarren go bider esan zidanean trikimailuaz jabetu nintzen. Kartzela! Ez zen ohartu aste batzuk lehenago gauza berbera esan zidana.

Beste askotan ikusi nuen. Ihes egiten nion. Amorratu egiten ninduen. Lehenengoan kontatu zidan ipuina bigarren batean ere kontatu zidalako. Alde egiten nion eskeko hari. Eta antzeko besteei ere bai. Amorrutik. Eurotariko bati kartzelaren ipuina lehenengoz mozolo legez aditu nion ipuina gezurra zelako. Ipuin hain ederra, hain ondo kontatua, eta gezur hutsa izan. Berarekin egindako zuzengabekeriek eroan zutela kartzelara, errugabea zela, eta xehetasun bitxietan hainbeste luzatzen zen! Ipuin kontalari trebea zen. Hain trebea, hura dena gezurra zela deskubritu nuenean zapuzturik lotu nintzen. Baina gezurra ote zen? Legenda urbanoa. Beste bat.

Eguerdi ostean lakura joan gara. Gizonak orain ez dirudi aipatu filma horietakoa, marinel dotorea baino. Filmetako marinela, jakina.

Lakuan ibili garen bitartean gogoratu zait goizean idatzitakoan eskaleen zakurren kontuak falta direna. Atzera eginda, idatzi egin dut. Gorago ageri den moduan.

Kalean bizi direnek zakur txikiak gura izaten dituzte lagun. Gutxitan handia. Eta, handia izanez gero, artzanora alemana. Txikiak jateko gutxi behar dutelako edo, leku zabalik behar ez dutelako edo. Edo beste zakur handiek jabea izaten dutelako ote da? Artzanora alemanak izan ezik. Holakoak –artzanora alemanak, italieraz tedescoak— edozeinen eskura daude. Baita eskaleen eskura ere.

Eguerdian, 'Il giardino di Alice' honen jabeenera bazkaltzera joan naizelarik, kaleko abaroetan bizi direnen itzaletan ikusten ez diren zakur horietako bat agertu da atean. Txirrina jo dudaneko. Handia. Zuria. Arrazakoa, zilegi bekit hitza. Halako zakurren jabeen munduan arraza kontzeptua positiboa baita.

Zakurrak kokoloarena egin du. Etxean sartu gara, eta bera kanpoan geratu. Rusti da. Etxe barruan berriz beste zakurtxo bat dago. Zuria. Txikia. Edozein aseguru-etxeren iragarkiak egiteko moduko zakurrak. Lorategitik lakua erakutsi didate.

Bazkalondoan joan gara lakura. Laco Maggiore da. Halaxe deritzo, nahiz eta Italiako handiena izan ez. Gizonaren ontzia ederra da. Zortzi metro luze bai. Itsasoan zabal-zabal edonora ibiltzekoa. Karelez kanpoko makina birekin, batari abant eta besteari atzera, halaxe eginez edozein auto bezain aise maneiatzen ahal da. Biak pizten horrexegatik saiatu da gizona. Ni batekin nahikoa dela eta, zertan biak piztu, horrexetan egon naiz.

Lakua ez da itsasoa. Hala ere eguraldiak bere beharrak egiten ditu. Gero, gainera, lakuaren dinamika dago. Alde batetik sartu eta bestetik irten, ibaiaren korronteak hortxe dira. Ticino ibaiarenak. Ondo kontutan izatekoak. Ba ei da lakuko gune jakin bat, ontziak zein gizakiak desagertu egiten direla diotena. Ontziak, diotenez, gune horretan hondoratu eta alboko lakuetakoa batean agertu izan dira. Gizaki desagertuak, inon ez. Trikimailu ederra, dio gizonak, bere burua erditik kendu nahi duenarentzat. Hanka egin eta jo dezatela hiltzat.

Psikoanalistak dira senar-emazteak. Lakuak eragiten dituen emozioez hitz egin dugu. Ez da itsasoak eragiten duen barne-baretasuna bezalakorik hemen. Han atzean itzel handi ikusten dira mendiak. San Gotardo ingurukoak. Urriaren erdia da. Hain goiz, gailurrak eta maldak zuri-zuri. Desagertu izan diren gizakien aitzakiaz Bigarren Mundu Gerrara goaz, emakumeak berbatik hara baitio:

- Partisanoek Suitzara lakuan barrena ihes egiten zuten.

- Zenbat kilometro dira?

Umearen ilusio beti berriaz galdetu diet, pentsaturik arean oraintxe bertan egin genezakeela Suitzara. Beste muga-marra bat gainditzeak eragin liezadakeen ilusioaz.

- Hirurogei.

Gizonak erantzun du. Hirurogei kilometro asko dira. Egiteko prest ote den, ez dakit. Euria hasi du. Ziztuan egin diogu ihes goiko hodeiari. Hodei bakarra baita euri egiten duena.

San Gotardo horrek Hemingwayren A Farewell to the Arms eleberria gogora ekartzen didala-eta, aipatu egin diet.

- Bai, lakuan bertan egin zen filmaren parte bat.

Emakumeak esan du hori. Gizonak kontatuta daki, ziur. Gizona urte biko umea zela etorri baitzen lehenengoz hona.

Euria dakarren hodeiaren mendetik ihes lakuaren hango aldea ikusten da. Haren goian orain San Karlos Borromeoren estatua alboz ageri zaigu. Ontziaren bila errepidean behera etorri garenean ohartarazi naute estatua presentziaz.

- New Yorkeko Askatasunaren estatuaren ostean munduko handiena da –esan du gizonak. Lakuko leku honetatik begiratuta urak eta lurrak zaintzen diharduelako jarreran eraiki zutela dirudi. Zakurrarena eginez. San Karlos Borromeo, zakurra. Zakur ona.

Estatuak ez-errealaren kutsua ematen dio, lehendik ere guztiz benetakoa dela sinestea gaitz egiten zaidan leku honi. Lakuaren beste aldean, estatuaren eskuak seinalatzen ez duen direkzioan, Euro Atomoa delako erakundearen eraikina ikusten da. Esfera erdia, eta tximinia luzea alboan. Dariok gaitzespenez begiratzen dio.

San Karlos Borromeoren irudia brontzezkoa dela uste dut. Santuaren irudiaren barruan gora eginez bururaino igo ahal dela diote. Inguruan eliza-itxurako hainbeste eraikin dira. Via Crucis ibilbidea osatzeko eginak zirela diost gizonak. Ez ei zuten erabat osotu, ostera.

Ez dit ematen estatua New Yorkeko Askatasunaren estatuari aldera dakiokenik. Ez nago bigarrena zuzenean ikusita, ostera. Beraz, neure begien amarrua ote da hau haren aldean txiki begitantzea? Ala beste hura, urrunekoa, benetan dena baina handiago ikusten dut, irudimenean?

Gizonak nahiz ontziak desagertu egiten ei diren gunean gara. Nevadako Piramide Lake datorkit gogora.

Indioak hara ekarri zituzten, erreserbara, beren ingurumenaren aldean guztiz bestelakoa zen batera; mortura. Egokitu egin ziren, hala ere. Eta halako batean sinesmen berria sortu zela diote. Indioen arteko batek sortua.

Bada, Renoko zuriak ez dira Piramide Lakera joaten, sinetsi-edo egiten baitute haren itzal gaiztoa benetakoa dena. Eskizofrenia.

Igande goiza. 'Il giardino di Alice' honetan ohetik ez jagiteko gogoia ematen du. Kanpoan udagoieneko argia igartzen da.

Asfaltozko kaminoan behera natorrela alboko bide bat ikusi dut, sarreran ezkerretara kanpai dorre taxuko metro eta erdiko eraikintxo bat duena. Hor irudiren bat izan behar dela uste izanda, ikustera sartu naiz. Santa Mariaren irudia, nahikoa galdurik, eta Padre Pio dioen grafitia dira apaindura bakarra.

Bidean pittin bat aurrera egin dut. Basorantz, ke usain batek erakarrita. Bidean barrena hogeit hamar metro egin ostean kea arnasten hasi naiz. Bideko albo batean nekazaritzako tresneria uherra. Ijitoen susmoa egin zait. Karabana bat. Hortik dator kea. Zakurren zaunkak. Nire pausoetan zapalduz atzera egin dut.

San Karlos Borromeoren estatuaren ingurura iritsi naiz. Atearen aurrean bancarella deritzona dago, hau da, alonak eta mahai luzeak, banku legez, huskeriak saltzeko. Santuaren zerak, elastikoak, oroigarriak. Public Enemy. Atean hiru euro eta erdi ordainduta sartu naiz santuaren inguruko giardinoan.

Muino batean dago irudia. Errematxez josia da. Esan nahi baita zatika egin zutela, eta gero zatiok josiz gora altxatu irudia. Barrutik hutsik dagoena. Eskailerak dituela salbu.

Irudiaren burura iritsi naizenean santuaren irudiak begi ninien balizko leku bietan zulo txo bana duela eta, lehenengo ezkerrekora jo dut, eta gero eskoikora. Inguruaren spot bana ikusten uzten dute. Ezer aipagarririk ez.

Estatuaren kokotsaren barrualdeak kadira itxuraz eroso osatzen duelako, idaztera hortxe eseri naiz. Ipurdiaz ukitu baino ez, eta ura dagoela sentitu dut. Ur hotza. Behingoan zutitu naiz. Estatuak itogina du buruan. Barandan jesarri naiz, oharrok idaztera. Halako batean, zer da eta, euliena-edo den zarata aditzen hasi naiz. Gero eta ozenago. Buruaren goialdean euli mordoan hegan. Batek ukitu egin nau. Izaturik, banao.

Burua baino beheago estatuak gunee zabalagoa du. Hor grafitiak badira, beste edonon bezala. Paola ti amo. Sick of you. ORA & SEMPRE RESISTENZA!!! LAURATINO by VINCI. Roby & Manu 20/05/01 Back for ever LETY T.A.

Jesarrita, lekuari buruzko orriak dioena irakurtzeari ekin diot.

Carlo Borromeo nacque il 2 ottobre 1538 nel castello che sorgeva sulla Rocca di Arona, distrutto successivamente da Napoleone. Nel 1610, a soli 25 anni della sua morte, venne proclamato Santo⁹.

Susmagarria. Hoge urteren buruan santu egina. Politikagatik, ziur. Behera noa.

Historiako lehenengo parke tematikoa bertan sortu gura izan zutela esan dit lehenago Dariok. Gogora datorkit Feltrinelli liburu dendan ikusitako liburua. Gesù lava più bianco; la chiesa e il marketing. Jesusek zuriago garbitzen du; eliza eta marketinga. Parke tematikoa bisitatzen segitu nahi dut. Arona herrirako bidean barna.

Aronarako bidean bazterrean utzi dut kamino nagusia, asfaltozkoa, antzinakora jotzeko. Bolibarretik Ziortzara diren harmailen antzekoak dira hemen ere, erromesek halakoak oinez egiten zituzteneko denboren hats.

Harmaila bi baino ez dut egin, behean estanpa bi ikusi ditudanean. Makurtu egin naiz, batzera. Kristorena da bata, Padre Piorena bestea. Pioren izena, lehen grafitian eta orain estanpan. Harrigarria, ostera, bigarrenak, Padre Pio barik, San Pio dakarrela da. Santu egin zuten, bada.

⁹ Karlo Borromeo 1538ko urriaren 2an sortu zen Aronako arroka-muinoan altxaturiko gazteluan, zeina Napoleonek suntsitu baitzuen behin eta berriz. 1610ean, hil eta 25 urte baino igaro ez zirela, santu egin zuten.

Estanpako irudian Kristok berdeak ditu begiak, zizelez taxaturik ezpainak, zehatz orrazturik adatsa eta, oro har, metrosexual leunduaren airea. Horren eredu, edo Jesukristo Super Star, edo bestela David Beckham. Burura datorrit, beste behin ere, Jesukristoren aurpegiak ikonoetatik oraingo irudietaraino egin duen bilakaera. Estanpak behera nork jaurti ote dituen lotu naiz une batez. Hori alde batera –neure buruari hori ere galdetu diodan arren–, Pioren irudia egin zait are deigarriago.

Argazkia da estapan ageri dena. Pioren beraren argazkia. Ez zait erabat ezezaguna. Gizon zaharra, bizarduna, aurpegian amorru edo haserre keinu okertu bat ageri du. Keinu hori nabarmenago egiten duena agian zera da, eskuak kasik kokotseraino altxaturik dituela, eta eskuotan artilezko esku-babeserako batzuk dituela, abituaren marroi-kolore berberekoak, eskua osorik estali beharrean hatz muturrak agerian uzten dizkiotenak. Ezta halako goante berri apal batzuk erosteko ere aski ez duen pobrearen itxura ematen diote artile-zatiok. Estanpek otoitz bana dute atzealdean.

Bidean noala otoitzen balioaz hausnartu dut. Psikoterapiaren aldetik baliagarriak dira. Otoitz bera behin eta berriro errepikatzeko gai izanez gero, buruan izan daitezkeen beste denak aldenarazi egin. Formulak bilatu. Kosmobisioa formula errazetan laburtu. Dena formulon bidez ulertu, endelegatu. Edozeri zentzua antzeman, edo eman. Otoitzen funtzioa.

Aronako erakusketa jauregian La femme fatale erakusketa. Ixteko ordua izan denean kanpora egin dut. Dario eta Camila zain ditut.

Lakuan gaude. Ertzean. Leku hau, hau bezalako inguruetan ohi dena bezalako lekua da. Lehendik ezagutzen dugun honelako lekuren bati izena aldatu eta, hara, berau! Etxeen taxuaren aldetik behinik behin. Niza. Biarritz. Lake Tajo. Hots, eguzkia denean Nizan edo Biarritzen geundekeen moduan sentiaraztekoak. Beraz, horietako edozeinetan egondakoa hemen ere egona da.

Goiz ederra. Aperitifa ekarri digute. Padre Pioz galdetu diet. Labor kontatu didate haren biografia. Zertzelada pare batez. Bere baita psikoanaliaren uretan araztu duenaren hizkera leunaz dihardu gizonak.

Padre Piok txikitan gurasoak nola akabatzen zituzten ikusi ei zuen. Zakurrekin akabatu. Naziek. Gero Padre Piok zakurrekin amesgaiztoak.

Dariok naziak aipatu dizkidalarik harritu egin naiz, Pio nazien denboran bizirik baldin bazen hura santu zein goiz egin bide zuten oharturik. Lourdesekoaren antzeko businessa sortu zuela diost gizonak. Ospitale eta guzti. Halaxe egiten zituen mirariak, bare-bare dio Dariok, ospitalera mediku on askoak ekarrita.

Karlos Borromeoren kasuaz hitz egin dugu, hura ere zein goiz egin zuten santu. Nik politikaren arloko konturen bat ere tartean izango zela diot, gogoan baitut garai hartan Milano ingurua Gaztelako koroaren mende zegoela. Dariok baietz diost, eta zein ondo irakatsi didaten historia. Dariok berak eskolan beste modu batez irakatsi ziotela deitoratzen du. 60 urte ditu. Guk biok –Camila emazteak eta nik neuk– historia eskolan beste modu batez ikasi izanaz pozten dela dio. Horretan ez dabil zuzen. Guk ere beraren moduaren hain ezberdina ez zen modu batean ikasi genuen. Eguerdiko argia eguerdiko argi da. Niza. Biarritz. Lago Maggiore. Dena bat.

Zakurrak eta jabeak. Nork zein zakur. Zakurrak jabeari ematen diona. Sinbiosia. I eta zakurra. I txikia, zakurra mandoa. I eta zakurra elkarrekin dabilta. Kanean ezagunik ikusten ez duenean, I ez dabil bakarrik. Ezagunen bat ikusiz gero, balizko ezagun horrek I eta zakurra izaki bakarra izan moduan hartu beharko. Zakurrari berba egin, aginduak emanez. Zakur terapeutikoak. Psikoanalistek etxean ez zieten berba egiten zakurrei. Premiarik ez. Bestela zakurrak psikoanalisiaren baliokide.

Cataldoren institutura joan naiz. Bulegoan sartu garenean lankide batek oparitu dion liburua erakutsi dit. "Eskola nire zakurrari azaldua". Serendipity.

San Pioren gaia buruan dabilkit. Metroan noalarik, atzo behearen gainetik batu nuen estampa irakurri nahi izan dut. Santuaren irudia ikustean jantzirik dituen eskukoei begiratzen diet. Oraintxe birziklatu ahal izan dut atzo terapeutek eman zidaten datua, zera, estigmak agertu izan zitzaizkiola. Odolaren jarria eragozteko erabiltzen zituela halakoak. Orduan santu piccoloaren istorioa kontatu zidaten. Irudi hari begietan behera odol-malkoen negarra agertu izaten zitzaiola eta, halako batean barruan begiratu eta hoditxoak ziren han. Trikimailua. Dariok Padre Pioren zauri eta estigmata eldarnioa zela esan zuen. Begirunez esan ere, histerikoak bere burua zigortzeko duen joera aipatuz. Plok burua hormaren kontra jotzen zuen, horra.

Metrotik irtendakoan Duomo plazako Feltrinelli liburu dendara joan naiz. Ostiralean ikusi nuen beste haren bila. Santo impostore, controstoria di padre Pio¹⁰. Mario Guarino. Kaos edizioni. Dariok kontatu zidana halaxe denentz jakin nahi dut. Ostiralean liburua esku artean hartu, aliritzian zabaldu eta begietan kolpatu ninduen pasarte agertu zitzaidan. Padre Piorena eldarnioa zela. Sarrerara joan, haren jaiotze data begiratzeko, lehenik eta behin. 1887an jaio zen. Gurasoak naziek akabatu zizkiotelakoa ez da horrela. Padre Pioren historia hainbestetan aditu du, zentzumenak lar adi izan barik, ze lainoturik gorde baititu datu nagusiak. Berdin dio. Liburua erostea erabaki dut.

Kutxarako ilaran zain nagoela, horra euro binatan saltzen diren liburutxoak. Bat Marguerite Yourcenar harena. I trentatré nome di Dio¹¹. Hartu eta zabaldu egin dut. Ikusi dudana lehen hitza, chiens! Zakurrak.

Bidean aurrea oinez jainkoaren hogeita hamahiru izenak irakurtzen noa. Italiaraz eta frantsesez. Zakurren aipuren bila, bai, baina aldi berean liburuari mamia antzeman nahirik.

Liburuari ez diot mamia antzeman. Zakurren aipamena izenetako 28.ean dago. Halaxe dio:

La femme – aux – chiens

Duomo plazan, San Paolo liburu dendaren aurrean, afrikarrak liburuak saltzen. Bati 50 xentimo eman dizkiot. Beste batek frantsesez hitz egin dit. Frantsesez ez dudala irakurtzen esan diot, saltzeko dituen liburuen artean badu-eta bat hizkuntza horretan; "La nuit e...", ez dut dena gogoan. Merci. Irribarre zabala eskaini dit.

¹⁰ Santu iruzurtia, aita Pioren kontrahistoria.

¹¹ Jaungoikoaren hogeita hamairu izenak.

Plazan aurrera eginda emakumezko eskale bat behearen gainean bertan behera. Esku bat, bendaz bildua, burua baino gorago du. Padre Pioren eskuetako estigmen babestailuak datozkik gogora. Plaza turistaz beterik da. Inork ez dio emakumeari jaramon egiten. Liburu dendan ikusi dudana beste bat datorkit gogora. Teresa Kalkutakoaren bizitza salatzen duena. Hori, damurik, ez dut erosi.

Yourcenarren liburua behingoan amaitu dut.

Via Porta Vittorian larruazal iluneko gizon bat, eskean. Xentimo batzuk eman dizkiot, neure burua madarikatuz. Ganorazko zer edo zer idatzi beharko nuke halakoei buruz. Kaleko beste hegalaria begiratu dut. Joseph Conrad izena ikusi dut, eraikin batean eskegita dagoen oihal luze zabal handi batean. Haraxe egin dut.

Milango eraikin faxista taxukoen artean profaxista den epaitegien eraikinaren goiko kantoia baino hogeit hamar metro lehenago, behearen gainean apatx jesarrita eskeko gazte bat, buruan halako kapelu artilezko luze bat duena. Altzoan bilduta zakurtzua. Beltza. Txikia. Eskeko, junkie, aterperik gabeko eta halakoen alboan ikusten den arrazakoa. Hau dena idazten hastean izan dudana ideia itzuli zait. Simetriarena. Aberatsen eta pobreen arteko simetria-asimetria sisteman zakurrak direla ardatza, edo ardatzetako bat behintzat.

Eduki, edo ukan, denok daukagu, edo denok dugu, zerbait. Gure loa behintzat. Gure bakea lotan. Baita ezer ez duela uste izango genukeenak ere, alegia, kalean bizi denak badu bere loa, eta badu baketan lo egiteko gogoia. Eta lotan den artean baten batek hori kendu ez ezik eraso egin liezaiokeen balizkoaren beldurra. Horrexegatik zakurra. Loaren lainoaren beste aldetik hona etorraziko dion zakurra. Aberatsak bezala, pobreak ere zakurrak. Aberatsak ere badu eta bere loa, eta baketan lo egiteko gogoia, eta badauka, bakea kendu nahirik inor baletor badaezpada ere, lotatik zaunkaz aterako duen zakurra. Landarez apainduriko burdinazko hesi, ate gotortu, bideokamera, alarma, arma eta halakoez gainera, jakina. Aberatsari loa kendu, lapurretan egin nahi izango liokeen balizko lapurrak kenduko lioke. Kalekoari loa kendu, hantxe bertan akabatu gura izango lukeen balizko faxistak, balizko xenofoboak, balizko zerak... Baina zein balizkoago? Eskaleak kalean hilda. Ostikaturik. Lotan direla su emanda. Bilbon Milanen bezala. Piztiak. Gizakia eta zakurra. Sinbiosia eta simetriak.

Asteartea. Milano eurlan itzartu da. Grisari grisa erantsi zaio, grisago egin zaio. Kalean dabilen trafikaren harrabotsa ozen iristen da honaino. Horren bidez semaforo, tranbia, bus geraleku eta halakoen mapa buruan osa daiteke. 'Il giardino di Alice' hartan zakurren zaunka hurbil urrunaren bidez hango topografia osatu ahal zen lege berean. Uhinetan igarotzen dira hotsak. Padre Pioren ipuina ez zidan zuzen kontatu Dario psikoanalistak. Halaxe frogatu ahal izan dut haren kontrabiografia irakurtzean. Hala eta ere, egia zioen. Eldarnioari dagokion aldetik ez ezik, haren bizitzan izan ziren zakurren itzalaren aldetik ere bai.

Behin batean, gauez, etengabeko zarata aditzen ari zela eta, kanpora egin zuen, zer zen begiratzera. Begiak sutan zituen zakur beltza! Aitaren eginez uxatu zuen. Zakur beltza, deabruaren irudietako bat. Batez ere Padre Pio bezala mendialdeko bazterrean jaio denaren irudimenean.

Bart, astelehena, afaria izan genuen. Cristina Muccioli izeneko baten etxean, berak, Giovannik eta hirurok. Filosofia irakaslea da. Laster ikastaro baten gidaritza egingo du. Gaia, eromenaren irudiak filosofian. “Gli archetipi della follia nella letteratura”¹².

Etxean sartu ginenean, mahian erretilua, eta erretiluan granada erdi bat, aranak gora begira. “Espainiako Erregetzaren sinboloetakoa”, esan dut. Hanka sartze galanta. Ondo etorria adierazteko erabiltzen da Italian.

Afaldu ahala, eta granadarena ahaztarazteko, ikastaroan landuko dituen gaiak azaltzeko eskatu diot anfitrioiari. Gogotsu ekin dio, ahotsa leun, gaiari.

Lehena Husserl aipatu du. La mancanza di senso¹³. Hitlerren garaiari lotu dio gaia. Ez diot ondo ulertu. Gero duela milaka urte eromena zer zen azaldu du; gerran huts egiteari irizten zitzaion eromena. Zein den eroa, gerra ustez ondo prestatu ostean hartan hasi eta huts egiten duena! Zelan izan ahal da zentzuzkoa horretan huts egiten duena. Eroa halakoa, etsaia zorrotz ezagutu duelakoan hari ekiten dionean huts egiten duena! Ez ote du dena behar moduan prestatu? Ezetz? Bada, hori bai eroa! Honetara begiraturik Bush eroa da.

La folie de l’amour¹⁴ aipatu diot. Maitemindurik egotea mundua zentzun barik ikustea da. Maitemindua itsu dago. Cristinak zuzendu egin dit berriz. Maiteminarena gizakiaren etapa infantila ei da. Infantea, berbaren esangura hertsian, hitz egitera iritsi ez dena baita. Maiteminduak ezin du hitz egin. Zuhurtasunez behintzat.

Berben esangura hertsia Bibliara eroan gaitu. Ganbeluaren adibidera.

Behin batean, Cristinak greziera ikasten ziharduelarik, ebanjelioetako pasarte ezagun bat egokitu zitzaion. Ganbelus grekoz zer den begiratu zuen. Ontzietako sokak lehorrean estekatzeko erabiltzen den lehorreko harriaren begia edo huts-gunea da. Esteka-harria. Portuetan aihena esaten zaiona. Gaitzago dateke aberatsa zeruko erresuman sartzea orratza ganbeluan sartzea baino. Eta ez, “ganbelua orratzaren begi-zuloan sartzea”.

Ebanjelioko pasarte itzuli zuenak ez zuen Cristinak hartu zuen nekea hartu, hots, hiztegian begiratzearena. Grezierazko ganbelus hartan latinezko cambelus irakurri ei zuen eta, esangurak halaxe aldaturik, aurrera egin zuen.

Eta hona gu, betidanik ganbelua –animalia- orratzeko zirrikitan barrena sartzen imajinatu guran, eta ezinean. Ezin ganbelua hala irudikatu. Ezin aberatsa Zeruko Erresuman sartzen ikusi. Aberatsik ez Zeruko Erresuman! Eta gero zenbat odol huste, zenbat oinaze bide, zenbat gerra modu, irudi horren interpretazioaren kariaz. Aberatsik ez Zeruko Erresuman, ganbelua orratz-zirrikiturik sartu ezean!

Irakasleak testua bere hartan uzteko esan zion Cristinari. Bazterrak ez nahasteko, arren. Hobe ganbeluaren irudiarekin segitu. Bi mila urte beharko dira duela bi mila urteko hutsa zuzentzeko.

¹² Eromenaren arketipoak literaturan.

¹³ Sen falta.

¹⁴ Maitasunaren eromena.

Giovannik jenio kolpe batez esan du ganbeluak orratz zirrikitan barna egiteko dukeen eragozpena konkordurak direla. Barre egin dugu. Gure azpikontzientean horixe baita ezintasunaren gakoa. Konkordurak, eta ez ganbeluaren beraren neurria. Ikusi izan dugu ganbelu argal luzea are argalago eta luzangago eginez zirrikitan barrena sartzen, baina konkordura horiek!

Eromenaren eredu klasikoetan klasikoena Ulises dela dio Cristinak. Jainko-jainkosei behin eta berriro desafio egin zien, eta jainkoek behin eta berriro zigorra eman. Jainkoei desafio, hori eromena. Haatik, jainko-jainkosek, haren ekinaren irmotasunaz ohartzean, barkatu egin zioten, eta Itakara onez itzultzen utzi. Etxera iritsi zelarik, zakurrak, beste inork ez zuen ezagutu. Hortik –dio Cristinak– ziniko hitza –grekoz kýôn, zakurra–, eta zinikoen filosofiaren ildo; itxuraz erreala dena baino harago iristen den zakurra bezala jardutea. Usaimenari esker. Alegia, begien bidez barik sudur zuloen bidez antzeman behar dela errealtatea. Eta maitasuna feronoma horien gorabehera besterik ez bada, zer? Usainduz maitemintzen ote garen, bada. Zakurrak bezalaxe.

Erromarako trenean Padre Pioren kontrabiografia irakurtzen amaitu dut. Ez da inon ageri nazien zakurrek gurasoak zelan akabatu zizkiten ikusi zueneko pasartea. Beraz, Dariok huts. Heriotza 1968ko irailaren 23an etorri zitzaion. 2002ko ekainaren 16an Joan Paulo II.ak santu egin zuen. Karlos Borromeo egin zutena baino bizkorrago. Hogeita lau urteren buruan. Karlos eta Pio, laurehun urteren aldearekin, biak santu. Nahiz eta 1923an eta 1926an Fedearen Auzitegiak Pio inpostore aldarrikatu. Eskuetan-eta ageri zituen estigmak –gogora datorkit estapan ageri dituen goanteak, ustezko estigmak babesteko jarriak– ez zituen egiazkotzat Erromako burokraziak. Estigmok beti hor izaten ei zituelarik, egiazkoak ziren ala dena maskarada hutsa zen jakiteko tenorea Pio hiltzekotan zela etorri zen baina, oi!, miraria. Azken arnasa eman baino hiru egun lehenago estigmak desagertu egin ziren. Iruzurraren zirkulua, borobildurik. Karlos Borromeo zergatik egin ote zuten santu. Trentoko Kontzilioaren sustatzaileetako, Milango kardinala izan zen denboran Felipe II.aren menderakuntzari aurka egin ziolako, menturaz.

Padre Pio, Santo Pio. Inpostore iritzi zioten dokumentuak zuzendu barik, santu egina. Historiako lehenengo kasua. Urtean zortzi miloi lagunek bisitatzen du haren hilobiaren inguruan eraiki den parke tematikoa. Trentoko espirituaren araberako santua, Trentoko espiritua berretsi duen Joan Paulo II.ak santutua.

Ahaztu Pio, diotsot neure buruari, Erromako lagunak etxera noalarik. Eta ahaztu zakurrak! Gaitza hiri honetan. Ze, zakurrak ez dira, ba, otsoaren ahaideak? Hiriaren sorreraren legendarekin bat, Romulo eta Remo fundatzaileak otsemeak elikatu ei zituen, eta horra orain horren irudia nongura. Otsemearen irudia.

Zer moduz hizkuntzarekin? Italiaraz osorik irakurri dudak lehenengo liburua erakutsi diet; Santo inpostore, controistoria di Padre Pio. Barreak.

Afaria Il forte izeneko leku okupatuan. Gotorleku izandakoa da, Iruñekoa, Baionakoa eta halakoak gogora ekartzen dituena. Sarreratzat tunel moduko bat du, eta horretan horra berriro zakurrak. Eskaleen zakurren antzekoak. Hemen bizi direnak, horiek bai benetako zinikoak. Klasikoek, ziniko zaharrek, bizitzan askatasuna beste ororen gaineratik estimatzen zuten era berean maite dute eurok ere hura. Zirkulua bertan ixten da. Ez dut zakurren harira gehiago idatzi nahi.

Azken eguna. Aireportura joan aurretik etxeko jaunak adarra jo dit. Urtezaharra datorrela eta, urteko azken eguna non eman erabakitzeke, atarian turista-bidaiaren publizitatea utzi diote. Eskura eman dit.

Italian bertan leku dotore ugari iragartzen dute. Napoli, Capri, Portofino eta beste hainbat. Izarra, ostera, Padre –halaxe dio iragarkiak– Pioren sorterrria da. Hogeita bat eurotan egun bi San Giovanni Rotondon. Lehenengo egunean, irteera, ailegaera, meza, afaria eta lo egitea, azken hori hiru izarreko hotelean, komuna eta dena duen birentzako gelan hain zuzen; gainera, egun horretan serata dantzante, alegia, dantza gaua. Bigarren egunean, gosaria eta erosketei buruzko aholkuak; gero bazkaria eta itzulera. Bidaia abenduaren hogeita lauan eginez gero, hirurogeita hamabost eurotan, Gabon Afari Handia sartzen baita egitarauaren barruan.

Hegazkinak Alpe mendiak ditu hor behean. Laco Maggiore. Arona herrixka. Borromeoren estatua. ‘Il giardino di Alice’. Triptikoan Blaise Pascalen aipua begiratzen dut. “Gizakien gaitz guztiak arrazoi bakar batek eraginda datoz; ez gara gai gela batean atsedenean egoteko”.

Il Cenacolo

edo

Kristo suizidaren azken orduak

Ostatutzat utzi diguten palazioa aspaldion ospea harturik dagoen eliza horrexetatik hur dago. Honetaz, delako palazioaren bila maleta arrastaka eroateak ohartarazi dit, pisua noiz arte jasan beharko ataririk atari arima penatuen modura begiratzuz ibili bainaiz, hau ote den-eta ez, ba ea hori den-eta ezta ere, azkenean izenak hortxe idatzita ikusi ditudan arte. Palazzo eta Santa Maria delle Grazie, direkzioak gezi banaz seinalaturik. Elizari buruzko geziaren balizko ibilbideari begiez jarraiturik hortxe antzeman dut. Ondo. Ea kongresuaren tarte batean bisitatu ahal den.

Bi egunean izan gara kongresuan, giza eskubideei eta munduko gerrei buruz hizketan, eta hirugarreneko goizean etorri zaigu gonbidapena. Antolatzaileen aldetik. Da Vinciren hori ikusteko, Il Cenacolo¹. Ea hortxe goaz. Turista andanatoa.

Santa Mariako ateetan turista asiarrak daude. Gurekin datoz batzuk barrura. Ez dakit nongoak diren, ez baitut turismo-gidariak hitz egiten dien hizkuntzan halakorik erabakitzeko lorratzik. Japoniarrak edo bestela korearrak direla esango nuke, baina zinez zaila egiten zait japoniarrak eta korearrak ezertan bereiztea. Jarri ere, ez naiz horretara inoiz jarri, egia. Nolanahi ere, bitxia da gure mendebaldeko ikono ezagunenetakoa horiei erakustea. Zer ote dakiten horretaz, erantzuna guk euren sinesmenez dakigunaz geure buruari galdetuz topatu ahal delakoan nago. Nik neuk, deus ere ez. Eurenaz. Eta Da Vinciren arteaz ere gutxi.

Bisitaldia hamabost minutukoa izango dela dioskute, ate biren arteko tartean itxaroten dugun artean. Alboan suertatu zaidan taldekideari begiratu diot. Emakumezkoa. Idazlea. Hirurogei urte. Honekero amama, bardako afarian irri jostalari batekin argitu zidanez.

Sartu gara. Itsu-itsuan, lau hormetako reffetorio bestela biluzian. Elkarren pausoetan zapalduz goaz, sortzen ditugun hotsek bertan behera utzitako edozein lekutan bezalaxe oihartzun egiten dutelarik. Altzarien falta, jakina.

Beste ezeri begiratu gabe, tropelean goaz koadroaren bila. Emakumea galdu dut. Bestela koadroa hortxe dago. Lau hormetako labur bietako atzekoenean. Beste horma laburrean ere badira irudiak. Il Cenacolo bera baino handiagoak. Inpresionanteagoak. Kristoren gurutziltzaketa hiru estanpata. Horma bietakoen artean Pasioa eta Heriotza kontatzen dute. Lau estanpata guztira. Hona jatera biltzen zirenek Jainkoaren Semearen azken penak eta nekeak gogoan izan zituzten. Niretzat, katolikoa kulturaz, denean dabil déjà vu airea.

Kristoren albokoak emakumea ematen du, diost halako batean norbaitek nire atzetik. Begiratu eta, bardako amama. Erotismoz begiratzen duena. Bere hirurogei urteen ostean gorde egin baitu gaztetan izan zen haren edertasunaren arrastoa. Gozatu egin du bizitzaz, pentsatu dut.

Leihoa dagoen lekuan irudi bat falta dela dirudi, halaxe esanez ekin dit. Argia koadroan sar dadin utzia da hutsunea, erantzun diot. Gure interpretazioetan, airean bertan nolabait, Da Vinci Kodea ezagunaren itzala dabilela igarri dut. Ez dut liburua irakurri, esan diot. Ezta nik ere, berak.

Goazen kafea hartzera, esan dit. Egon pittin batean, erantzun diot. Koadroari esangura sakona ateratzeko ahaleginean sartu naiz. Bat batean ideia argi bat gurutzatu zait, baina berehala alboratu dut, haragi minaren aldarrari bortitza nabaritu baitut. Kafea onartu diot emakumeari.

Kafearen bila gogora etorri zait laugarrenez nagoela Milanen, eta orain arte koadroa ikusi ez. Eta lehengo bidaietako irudiak etorri zaizkit, eta denen artean gizon trabesti ugariena. Gehienak, brasildarrak. Larruazala ilun denak, ia bi metro handi, hankak luze, ipurdiak mardo, feminitateaz dugun irudia astindu zidaten. Il Cenacolo horretako irudi hori, Codea liburuari esker ezagun egin dena, emakumezko batena dela eta ipuin hori guztia etorri zait gogora. Bardako amama nire pentsamenduetan sartu dela dirudi.

Emakume airea hartu diozu, nire moduan, baina pentsa zein zen gizon lirainaren irudia Leonardoren garaian; emakumeak halaxe esan dit, eta gero kafea hartzera jesarri garenean gelatoaⁱⁱ eskatu du.

Badugu ordu bat-edo hotelean egoteko, esan dit, gelatoa amaituta.

Gelako giltza harreran utzi gabe etorri da eta, ez da kasualitatea Il Cenaculo horretatik il lettoⁱⁱⁱ bisitatzera etortzeko nahia. Hirurogei urterekin zerbait daki munduaz. Eta sexuaz. Berak jo dit eta larrua, inork inorena jo badu, eta nire gelato beroa edan gero.

Zein da zure interpretazioa koadroaz?, titiak berriz estaltzen dituen artean galdetu dit. Mami sendoak dira. Horiekin mira eginda nago. Ez nire gelatoa mamion artean hartu duenean bezain, baina mira eginda. Ohartu da, eta beste ordu laurden bat badugula esan du. Elkarren ahoak bete ditugu berriz ere. Gero koadroa ikustean etorri zaidan ideia argia azaldu diot.

Koadroak errepresentatzen duena suizida baten azken ordukoak dira, esan diot; horixe; Kristo suizida; berak bazekien heriotza eman behar ziotena, ezta? Eta hala ere aurrera egin. Bonbarik gabe baina, bere burua heriotzari eman. Egungo islamiar suizidak bezalaxe. Ze, jarraitu dut, zer dakigu horien azken orduetaz? Nik neuk ezer ez.

Nik ere ez, bainugelari sartu da oraingoan, eta handik hitz egin dit; ebanjelioetan begiratu duzu, ala?

Begiratu egingo dut, erantzun dut, emakumearen bigarren duxaren hotsek nire hitzek estaltzen ote duten igarri izanik. Ez dutzatzea erabaki dut. Usaina ez galtzarren.

Bidali egidazu emailez zerbait, esan dit, gelako atea ixtean.

Zertaz?

Kristoren suizidioaz. Interesgarria dirudi.

Fededuna zara?, galde egin diot.

Ez, erantzun dit.

Ni ere ez.

L'Afrodite ritrovata

Beroa da Brescia udan. Batez ere abuztuan. Hirian ez da inor geratzen, atso-agure italiarren batzuk eta Afrikatik etorri direnak –horiek, denak!– izan ezik. Horiek ez dute oporretan nora joan. Edo badute, Afrikatik etorritakoek esan nahi dut, baina handik zerk ekarri dituen gogoan, hobe ez itzultzea. Herrimina badute, haatik, eta, Europa aberatseko beste edozein hiritan bezala, telefono-lekuen inguruan biltzen dira. Lokutorioetan. Egun askotan egiteko izaten duten bakararra haraxe deitzea; etxera. Goizetan autobusean sartzen ikusten nituen, euren aterpetxetik –Hotel Monte zuen izena, gogoan dudanez– gertuko zeukaten geralekuan. Iluntzean berriz, ilara-kide izaten nituen Loia plazako geralekuan. Tartean, espaloietan ikusten nituen, telefono hotsen gertuan beti.

Larruazal iluneko gizonetako haiek bakar-bakarrak kalean –emakumezkoen ez nuen ikusten haien artean– Brescia hiriak bi mila eta hiruko abuztuaren sinkroniatik kanpo zela eman zidan. Aspaldiko gladiadoreen antzera, itsasoaz beste aldetik jopu etorritakoek kolpea jo zezaketela pentsa zitekeen. Beren burua ez dute horretarako gai ikusten, nonbait, eta horretan ez ausartzean ageri dira arrotzen. Bestela, hantxe etor zitekeen Erromako Inperioaren Bigarren Gainbehera.

Aurriak dira nagusi Italian, eta nolabaiteko hondamenaren aurriak dira Afrikatik etorritakoak ere, baina abuztuko egun haietan hiria bera zen aurri nagusia. Garai bateko hiri-zibilizazioaren hondakin hutsa, hain zuzen.

Egun batzuk igaro nituen, tarteka italieraz irakurtzen, tarteka telebista ikusten, tarteka jatekoak prestatzen. Hori bai, egunero hurreratzen nintzen hiriko gunera, posta elektronikoa begiratzera, autobusean joan eta autobusean etorri, halaxe, Afrikatik etorritakoek telefono-zokoetara, lokutorioetara, egiten zituzten antzeko txangoetan.

Berririk ekarri ez postak, tenperaturak gora egiten segituko duela iragarri egunero telebistak –goizetan ekialdeko leihoak ixten nituen; arratsaldeetan, berriz, mendebaldekoak, horrela haizea sartuko delakoan edo bero galdak etxe barrua joko ez duelakoan, behintzat– eta, jatekoetan aldaketarik ezin eginik, asperdurak hantxe akabatuko ninduen, beste zerbaitegin ezean, behinik behin.

Eta, hara, abuztuko egunik inportanteena, hamabosta, bera beroena. Telebistako esatariak esan zuen moduan, “Italiarrek, urteko beren egunik inportanteena –Ferragosto delakoa– errepideetan emanen dute, beti egin izan duten lege berean”.

Esatariak ironia finez esan zuen “lege berean” hura, nik neuk “lege zoroan” esango nukeen lekuan. Italiarrak! Frantziatik bero zitalaren eraginez hildakoen berri zetorren. Beroak eta adinak, elkaturik, zahar mordoa ari zen akabatzen han.

Pasioan irtetea eta bide batez Bresciako Museoa bisitatzea erabaki nuen. Hura ikusi barik ezin itzul nintekeen etxera. Ezinago, kaleetan L’Afrodite ritrovata iragartzen zuten afixak behin eta berriro ikusi ostean. Ze, afixetako irudian ikusten zen Afrodita hegala zituen. “Aingeruek bezala”, etortzen zitzaidan beti gogora hura ikustean. Baina ez nuen erabakitzen hura ikustera joatea. Ferragosto egun hartaraino.

Etxe aurreko geralekuan ordu erdi eman nuen busaren zain. Etorri zenean ez zekarren inor, gidaria bera –noski– eta zerbitzuko beste langile bat izan ezik. Hirirainoko bidean sartu ziren bakarrik, Hotel Monte

aterpetxeakoak; larruazal ilunekoak. Poltsak hanken artean babesturik, beti barre algaretan, beti ozen berriketan. Egun hartan emakumezko italiar bat ere hantxe sartu zela eta zutik geratu zela dut gogoan. Bestela, denok arrotzak.

Telefono-gelen aurreko geralekuan lotu ginen denok, emakumea eta gidaria izan ezik. Pasioari ekin aurretik posta elektronikoa begiratu nahi nuen, egunero bezala. Ez zegoen mezurik. Kristau European tankera, taxi eta izen guztietako andremariak dira-eta, abuztuaren hamabostekoa gurean ere jai handia izaten dela oroitu nintzen. Museoa bilatzeari ekin aurretik, hiriaren gaineko muinora egin nuen.

Aldatsean gora, beroak hiriaren gainean ezarria zuen hodei hautsezko antzeko zikinaz, hodei itogarri astunaz, ezerk ere iragazi ezineko hautsaz ohartu nintzen.

Behin goian –nire burua kokatzeko– Bresciako geltokia bilatu nahi izan nuen, eta ezin. Aldean nekarren ura gerizpetan edanda, muino gainean dagoen Armen Museoan sartu nintzen, hango aire girotuak arnasa hartzea erraztuko zidalakoan.

Polita zen museoko ezpaten bilduma. Arma kontuetan adituegia ez naiz, ostera, eta, Excalibur filmaz gogoratzeaz gain, han ikusitakoetatik deus gutxi gorde ahal izango nuen. Memoria ernean behintzat.

Historian barna altzairua zenbat eratako ezpata bihurtu den ikusteaz asperturik, eta arnasketa berreskuraturik, behera egin nuen, Bresciako kaleetako gerizpe gozoaren bila.

Laiotzak dira Bresciako kale zaharrak. Derrigorrez. Garai batean eguzkiaren mende lan egiten zelako eta eguzkiari itzala bilatu behar zitzaiolako. Ba horrek salbatu ninduen. Horrek eta hango Hiriaren Museoaren –L’Afrodite ritrovata gorderik zeukan museoa– kanpoko atearen eta barruko atearen artean dagoen baratz modukoak, edariak zerbitzatzeko atondua baita. Hantxe egin nuen bigarren sutenen egarriarekin. Gero barrura jo nuen.

Epel, isil, turistarik gabe kasik, Arte Museoaren barruan zerua zegoen. Eta horregatik edo, museoaren lekua, ikusteko beste ezer paratu gabe ere, bera litekeela nahikoa museo, halaxe otu zitzaidan. Erakusketa lekuak non-eta soto, bebarru eta ziega-ormen arteko labirinto batean elkarri loturiko eliza, kapera eta halakoen sorta eder eta niretzat endelega ezineko batean atonduak ziren. Haietan barrena galtzea erabaki nuen, L’Afrodite ritrovata haren bila beren-beregi joan gabe. Agertuko zen hura ere, berez agertzekoa bazen. Bestela azken orduan joko nuen haren bila.

Sarrerako azalpenak zioenarekin bat, hantxe neuzkan etruskoak, erromatarrak, lonbardoak, veneziarrak, faxismoa, Italiaren historiako datu eta data nagusiak. Bada, alde aurretiko ezein plangintzarik gabe ekin nion bisitaldiari. Arau bat ezarri nion neure buruari, ostera; burua ez nekatzea. Historia datuzko betekadek larritu egiten nautenez, begiak bereziki ezeri eman gabe joatea erabaki nuen, eta halaxe iritsi nintzen Erromako Inperioaren garaiko etxe baten hondakinetera. Handik oinek kanpora eroan ninduten, etxearen baratza izandakora. Behin batean teilape arkupeduna izana zena, zutabe erorien biltegi bihurturik zegoen.

Han eguzkiak gogor jotzen zuen-eta, horren eraginagatik beharbada, aurriei begira imajina ezina zitzaidan etxe hartako sutondoa bizirik izaten zeneko giroa.

“Aurriak ez dira ezeren itzal”, pentsatu nuen, lehenago beste askotan bezala. Hondakinen artean begiratzuz ikusten zenez, hondakinok zer-eta osorik zegoen zerbaiten parte izanak ziren, kasu honetan etxe handi baten parte, bai. Baina etxe hura jausi egin zen halako batean, eta harrezkero ez dago zer eginik; hondakinetan hamaika mende emanda ere, ez nuke jakingo nire irudimenaz etxea berriro zutik ikusten. Museoek horren ahalegina egiteko eskatzen digute, oster, eta gehienok egin egiten dugu.

Berriro barruan, aurri haiek aurri bihurtu aurretik etxea nolakoa zen erakusten zuen bideoari adi paratu nintzen. Elektronikoegia zen trikimailua. Erromatar Inperioko jendeak imajinatu ahal izateko behinik behin.

Lonbardoek gurutzeak eta armak alboetan nituelarik egin nuen aurrera, eta, azkenik, ormetan irudiak zituen kapera batera iritsi nintzen. Aingeruak ziren irudietan. Nongura, zenbat nahi.

Deskubrimendu polita izan zen, egun haietan, telebista ikusten edo bestela joan-etorrietan ematen ez nituen tarteetan, Biblia irakurtzen ari izan bainintzen, Edengo Baratzeko Paradisuan izan ziren aingeruen arrastoaren bila.

Bresciara iritsi aurretik, aspaldi zen Erik ustezko aingeruaren gaiaz arduratzen ez nintzela. Haatik, L’Afrodite ritrovata haren iragarki-irudiak ziren kaleetan paraturik, esan dudan moduan, eta irudiotan ikusten ziren aingeru-hegalek Eriken akordua ekarri zidaten. Afroditaren hegalek ikusi eta bertan, Erikek behin batean esan zidan harako hartaz gogoratu nintzen.

“Geu gaituk historiako lehenengo poliziak!”, esana zidan, bere burua Paradisuko ateetan egondako aingerutzat aitortu zidanean.

“Historiako lehenengo poliziak, geu, Paradisuko aingeruak!”, pluralean esan zuen bigarreanean ere, bere burua halakotzat aldarrikatuz.

Norbaitek besterik uste izan balezake ere, aitormen hartan garrantzizkoa ez zen Eriken aingerutasunaren aldarrikapena. Muntarik gabekoa zen, zinez, bera aingerua ote zen ez ote zen, Paradisuan egona ote zen ez ote zen, eta beste ote denak, otezko bat izen ezik. Alegia, nola gogoratzen ote nuen nik Genesiaren ipuin hura? Zereginari ekin niolarik, maisuaren ahots erdalduna etorri zitzaidan.

“Jainkoak bere aingerua bidali zuen, suzko ezpata batekin”, gogoan, halaxe nuen nik esaten zigutela eskolan. Eta hala izan baldin bazen, hots, Jainkoak Paradisura aingerua halakoetarako bidali baldin bazuen, arrazoia aitortu beharko nion Eriki; langintza zikina aingeruarena –singularrean–, historiako lehenengo poliziarena.

Singularrean nahiz pluralean, orduan ez nion bere burua aingerutzat aldarrikatzean arrazoia zuen ala ez zuen eztabaidatu. Gaitz egiten zitzaidan bere aingerutasuna sinestea, ezer egitekotan horixe egin behar baitzen, sinetsi. Txunditurik, besteak utzi ninduen. Egia zela. Kristau Historiako lehenengo aingerua(k), bera(k) lehenengo polizia(k)!

Brescian balego bederen, zuzen zioela aitortu ahal izateko! Baina Erik ez zegoen Brescian. Ala bai? Egia esan, garai hartan Erik edonon agertu izaten zitzaidan eta, litekeena zen han ikustea.

Erik ere nonahi zegoen, Bresciara iritsi nintzenez geroztik Bibliako pasarte hura berriz irakurtzeko gogoia menderaezina egin zitzaidan. Urteko bizimodu arruntaren aurria zen Brescia, ostera; biblioteka publikoak itxita zeuden. Zorionez, etxean bazuketen liburuen liburua omen dena.

“Hoba ez!”, esan nion neure buruari, etxeko gizona Kristau Demokraziaren alderdi desagertu –aurri bihurtu– hartako kidea izana zenez gero.

Gizona, ostera, ez zegoen etxean liburua non zeukan galdetzeko. Alpeetan zen, etxeko besteekin batera, neu ere egun batzuk lehenagora arte egona nintzen moduan. Han, milaka urtetan goimendietan pilaturiko elurra urtzen ari zen uda erikor hartan, hondamendiaren testigu izatera deitu izan banindute legeaz sentitu nintzen. Memorian urtze hark eragiten zidan mina behingoz ahazturik, liburua bilatzeari ekin nion.

Ez nuen lar nekatu behar izan. Lo egiten nuen gelan bertan, gazteentzat egokituriko Bibliaren ale bat topatu nuen. Irudi ganorabakoz hornituta zegoen, baina harixe ekin nion, aukeran nuen bakarra zenez gero.

Bilatzen nuen pasarte topatzea ez zen zaila. Hura irakurtzean, ordea, ezusteko galanta hartu nuen; Jainkoak Adan eta Eva Edengo baratzetik suzko ezpatadun aingeruaren bidez egotzi zitueneko hura ez zen hala ageri Bibliako kontraeran.

Erikek esana zidan moduan –geu gaituk historiako lehenengo poliziak!–, aingeruak –pluralean– Edengo baratzetik at jarri zituen Jainkoak, gazteei zuzenduriko italierazko Biblia hark ere bazioenez.

Baina Biblia hura gatzetxoei zuzendua zela-eta, duda egin nuen pasarte ez ote zen halakoentzat egokitua. Ezetz erabaki nuen, eta Gustave Doré ilustraturiko Bibliaz gogoratu nintzen, eta gogoratu nintzen, halaber, Evaren lehenengo goizaz idatzi nuena, hots, Adan eta Eva –biak– Paradisutik aingeru batek egotzi zituenekoaz¹⁵. Oker nengoen.

“Traizionatu egin gaituzte! Txikitatik!”, pentsatu nuen, nork eta noiz traizionatu gaituen ez nekielarik, baina traizioaren egiazkotasunaz ziur.

Traizioaren berri emateko, hementxe daukat orain Biblia euskaraz. Dioena guztiz bat dator italierazkoan irakurri nuenarekin, italiara idatzian ulertu ahal dudanaren arabera, behintzat.

“Beraz, Jainko Jaunak, Edengo baratzatik bota egin zuen, lurra landu zezan, handik izan baitzen hartua. Gizakia bota ondoren, izaki hegadun batzuk jarri zituen Edengo baratzaren ekialdean, suzko ezpata distiratsuak zituztela, bizi-arbolarako pasabidea ixteko”.

¹⁵ Ikusi “Marihuanazko bufandak” (Txalaparta, 2002) bilduman dagoen ipuina “No da, bada, kea, Eba?” (105. orrialdea).

Erikek¹⁶ esandakoa Bibliarekin bat dator; historiako lehenengo poliziak, eurak. Pluralean. Atezain beldur eragile paratu zituen, Jainkoak, Edengo baratzetik at.

Ez dut indar egingo pasarte horretako beste xehetasun batzuetan –Jainko Jaunak Adan bota zuen, singularrean, eta Eva harekin joan bide zen; edo aingeru hitza barik izaki hegaldun dioela–, halakoetan luzatuz gero haria gal nezake-eta. Bresciako Museoko irudietara itzuliz, berriz, han aingeruak zerutiar ageri ziren. Gorputz osorik gabe pintatuak, sorbalda ziren, eta buru, eta hegal. Ez besterik.

“Horietan ere traizioa!”, pentsatu nuen, Jainkoak Edengo baratzeko atetan paratu ei zituen aingeru gerlariak freskoetako beste haiei alderatu nahi eta ezinean. Ez nekiena zen, ostera, traizioaren historiaren hastapenetako baten berri L’Afrodite ritrovata hark eman behar zidanik.

Ormetako freskoetako aingeru haiek hartara zirikatutik L’Afrodite ritrovata zuzen bilatzera jo nuenerako Museoan barrena lau ordu kasik etenik gabean ibilia nintzenez, hango barruko kafetegira egin nuen, ura edatearren. Kafetegiak terraza bazuen-eta, ura hantxe edatea erabaki nuen, hala zigarrotxo bat ere erre ahal izango bainuen.

Gogoan dut astiro ekin niola urari, astiro zigarrotxoari. Hiriko teilatuetan gora uhin zikinetan igotzen, lurruna igartzen zen. Bero hark bat baino gehiago akabatu behar zuela pentsatu nuen. Eta halaxe izan zen. Baina ez da kontua bi mila eta hiruko udako beroak eraman zituenak zenbat izan ziren esatea. Asko izan ziren, eta halaxe izan zirela aipatzea nahikoa. Eguna telefono-zokoetako itzalpean ematen ari ziren afrikarren akordua etorri zitzaidan burura.

“Egun osoa dei bat egitearen zain, horra herriminaren neurria!”, pentsatu nuen, neu ere herriminez nengoen arren beste haiena ezberdina zela ziur. Ezin itzuli duenaren herrimina, laster itzuliko denak sentituriko minaren halako hamaika da.

Ez dakit ur hark ondo egin zidan, ala zigarrotxoaren eragina izan ote zen, ala kanpoan zegoen beroak eragin ninduen, baina L’Afrodita ritrovata bila azkenik, munduko edozein museotan lau orduko bisitaldiak egin dezakeen kalteaz pentsatzen joan nintzen.

“Kalte nahikotxo”, esan dezaket orain, Afrodita zegoeneko zokondoaren alboan kasik hari erreparatu gabe igaro bainintzen. Non zegoen ohartu banintzen, txiripaz izan zen. Hura kasik atzean utzia nuelarik argi horixka batek betertzean jo ninduelako, bestela jai.

Han, argi horixka haren abaroan eta pasabideko ezker aldean, harrizko hiru horma eta laugarren bat – pasabidekoa– burdinazko ate eginik zituen gela karratu batean zegoen Afrodita.

Pauso bat atzera eginik, atetik begiratu nuen. Afrodita hura ez zegoen bakarrik. Aurrean bere berdin bat zeukan. Beste Afrodita bat?! Barrura egin nuen.

¹⁶ Ikusi “Ostarrak lurra ukitzen duen lekua” (Txalapara, 2018).

Gelako argitasun horixka goitik behera zetorkien irudi biei, leun, lepoan behera minik eragin barik joan zekien bilatu izan balute moduan. Minbera, guztiz minbera, baitziruditen irudiek.

Irudi biak elkarren ispilu izan zitezkeen, xehetasun batzuk gorabehera. Kolorea, lehenik eta behin; bat bestea baino ilunagoa zen. Horren zergatia garbi zegoen. Marmolezkoa zen irudi argia, brontzezkoa iluna. Bigarrenik, brontzezkoa bestea baino jantziago zegoen! Bai, zeren eta marmolezko Afrodita, argiena, zilbor hestearen zulotxo baina gorago biluzirik eta titiak agerian zegoen, eta brontzezkoari, berriz, titien gaineraino iristen zitzaion soinekoa. Bestela, biak bat. Biak ziren keinu berean ebakiak. Biek zituzten besoak aurrera eta zabal luzaturik, eskuinekoa beherantz eta ezkerrekoa gorantz, esku bien artean objektu ikusezinen bat baleukate moduan, nabarmen-nabarmen. Objektu galdua, harrezkero.

Hori bai, biak zeuden moduan zeudelarik ziren elkarren berdinak; hots, aurrez aurre. Zeren eta lepoz lepo jartzeko aukera izanez gero, besterik izan baitzitekeen kontua. Bata eta bestearen inguruan astiro ibiliz ohartu nintzen horretaz.

Afrodita argiagorearen bizkarraldea –hots, Afrodita biluziagoreana– ipurdi mami borobil perfektu haietaraino luzatua bera, akatsik gabea zen; oster, Afrodita ilunagoak, jantziagoak, hegalek utzitako zauriak eta ebatondoak zituen. Bizkarraldean. Aingeruen irudiei hegalek jarri izaten zitzairen alde bietan, omoplatoak baino beherago. Zauriak zituen, eta ebakiondo modukoak ere bai. Azkenok hegalek gorputzari lotzeko torloju-hondarrak ziren.

Zauri eta ebakiondo nabarmenak ziren. Hegalak erauztean egindakoak. Eta hegalek, non ziren hegalek? Gelako zokondo batean begiztatu nituen, aldare ematen zuen harrizko zutarran paratuak. Jainkoren bati opari utzita bezala zeuden.

Negarrak begietara egin nahi izan zidan.

Aldare airekoaren alboan irudiei buruzko informazioa zegoen-eta, malkoak huraxe irakurriz eragotzi gura izan nituen. Lerro batzuk irakurri nituen, asko ere ez, baina bai irudi bien zergaitiez ideia bat osatzeko adina. Eskuen artean falta zuten objektua ispilua zen, Afrodita argiaren kasuan, eta gerra-ezkutua, bestearen kasuan. Irudi bien artean jesarri nintzen.

“Hona traizioaren historiaren beste atal bat; lepoan hegalek jarri eta, gainera, eskuetan, ispiluaren orde, gerra-ezkutua!”, esan nuen neure artean, Erik aingeru ustekoa gogoan.

Traizioaren nondik norakoa ulertzeko, esan behar da irudi biak zirela Afrodita izandakoak, eta, halako batean, bietako bat berregokitu egin zutela, jarriz hegalek, izan zedin Hegaldun, izan zedin Garaitzaren mezulari. Horrela sortu zen La Vittoria alata, Garaipen hegalduna, orain haren izena gogoan ez dudan baten garaipena gogorarazteko.

“Maitasunaren jainkosa izana zena, gerra hotsen mezulari!”, deskubrimenduak min sorgorra eragin zidan. Gure zibilizazioaren aurrerabidean egindako pauso kultural garrantzitsua, zinez.

Irudi biak bestela hain ziren elkarren berdinak, molde beretik atereak ziruditen. Edertasunaren greziar molde klasikotik. Zutitu egin nintzen, eta Afrodita bien artean jarri. Neurriak hartu nahi nizkien.

“Bikiak, eta hortxe-hortxe metro eta erdi”, nire gorputza bien alboan paratuz erabaki nuen, irudiei zerien edertasunak garaiago, jagiago iritziaz zizkidala pentsatuz. Armonia erabatekoan ebakitako irudiak ziren, ostera.

Eta bat-batean, Afroditararen emakume-gorputz harrizkoa aztertzen niharduela haren titiei erreparatzean, Yolanda etorri zitzaidan gogora.

Yolanda Nafarroako hartan. Yolanda iluntzean begira eta gero dantzan. Eta Yolanda edanean. Eta Yolanda nire aurrean biluzten. Eta nire bizi guztian ikustea mesedea egin zaidan soinik doituena, armoniatsuena, Yolandaren soina. Titiak eta titiburuak, ipurdiak eta iturburuak, besoak eta besaburuak, belauak eta belauburuak, harengana dena zen biribilean burutua. Afrodita? Yolanda, denen artean txikiena, betargiena eta, biluzirik ikustea plazera izan duenak dio, armoniaren legeak bete-betean betetzen zituena. Gau labur bat egin genuen elkarrekin.

Yolanda! Afrodita aztertu ostean, La Vittoria alata, Garaipen hegaldunari ekin nion. Eta berriro ikusi nituen haren omoplatoetako zauriak eta ebakiondoak. Eta hegalak hantxe zeuden, aldare moduko zutarrian, erredun. Afrodita hegalean pisuak nekatur, Afrodita hegal erauziek zauritua, Afrodita hil eta geroko hegalez aingeru birjaioa. Treblinka etorri zitzaidan gogora. Eta Auschwitz.

Museoko sarreran erakusketaren liburuxka erosi nuen. Gose nintzen-eta, handik irten ostean Loia plazara egin nuen. Egun osoan ezer ahoratu barik, aurrien artean bilatu gura izan nuen non jan. Ez nuen gogoko ezer ikusi, ostera, eta oinez ibiltzeari ekin nion.

Kale nagusiko espaloietan taldeetan bildurik, Afrikatik etorritakoak arratsaldea egon-egonean ari ziren ematen, busa berriro hartzeko orduaren zain, nonbait. Nik kalean aurrerago hartzea erabaki nuen.

Kilometro bat edo egin nuen oinez. Aztoratu egin nintzen arte. Kale nagusia bitan banatzen zen gunera iritsi nintzelarik, ezkerretara ala eskuinetara jo lotu nintzen. Ezkerretara jo nuen, eta, oker egin ote nuen beldurrez, kaleak banatzen ziren gunera itzuli nintzen. Ez neukan hartu behar nuen busaren zenbakiaren akordua. Aztoratuago, are atzerago egin nuen, harik eta hura autobus ugariaren geralekua zela zioen kartela zeukan batera iritsi arte. Hantxe itxaron nuen.

Ordu erdiren bat igarota zen –Ferragosto, urteko egunik garrantzizkoena Italian– lehenengo busa etorri zenerako. Ez zen hura hartu behar zuena. Halaxe esan zidan gidariak. Eta esan gabe ere igarriko nukeen. Ez zekarren afrikarrik.

Afrikarrak zekartzan bus bat gelditu zenean, hantxe sartu nintzen.

Busaren barruko giroa ohikoa zen. Berba ozenak, barreak, poltsak hanken artean, txartel trukeak eta, oro har, munduaren sinkroniatik at egotearen sentsazioa. Liburuxka irakurtzeari ekin nion.

Busa etxearen gertuko geralekuan lotu zenean hantxe jaitsi nintzen. Irakurria nuen L’Afrodite ritrovataren historia, izatez aurkikuntza biren historia zena.

Lehenengo aurkikuntza 1826ko uztailaren 20an izan zen, bi mila eta hiruko Ferragostoko hura bezain beroa nekez izana zitekeen egun batez. Capitolium delakoa eta ni lehenago egona nintzen muinoaren artean agertu zen. Hegal eta guzti.

Hain txundigarria izan omen zen La Vittoria alada, Garaipen hegalduna, agertu izana, ezen berehala bilakatu baitzen hiriaren ikur. Sortzez hirikoa ez zen arren, hipotesiak eginez, irudia, jatorriz, Kristo aurreko hirugarren mendekotzat eta greziartzat jo ahal izan dute. Hori ahaztu gabe ere, sortzez hegalik gabea zela ohartarazi behar da. Bada, hegalak noiz jarri zitzaizkion, horra bigarren aurkikuntza.

Itxura batean, irudia Korintokoa omen da-eta, hura zakuratu ostean (K.a. 44an izan zen hori) Erromara eroan zuten. Hala ere, baztertu behar ez den beste hipotesi bat ere bada, alegia, Egiptotik ekarria izatea. Irudia Erromara nondik ere eroana zen, handik Bresciara ekarri zuten, eta halako batean hegalak paratu zizkioten.

Hegalak paratu, Bedriacorumgo bigarren batailaren kariaz egin omen zioten. Hori K.o. 69an izan zen-eta, horra zenbaki esanguratsua, traizioarena umoretsu hartzeko gogoia ematen duena.

Umorea gorabehera, hura dena Erik ustezko aingeruarekin izaten nituen berbaldietako gai nagusiari lotu nion; traizioaren gaiari.

Norbaitek alegiazko ipuin bat kondatu nahi izan balit legez zen. Greziatik Italiara joan, eta, hiru menderen buruan, Afrodita, maitasunaren eta edertasunaren jainkosa, aingeru gerra hotsen mezulari bilakatu zen. Horra traizioa.

Eta traizioaren tamaina borobiltzeko, Afroditari, hain eder ebaki zutenean esku artean jarri zioten ispiluaren orde, gerra-ezkutua paratu omen zioten, La Vittoria alata legez gerrariago ager zedin. Zorionez, galdua da ezkutua, ispilua galdu zen historiaren laino berean. Bestela, gerra-ezkutuan bildu ahal zen odolak ispiluarena egin ote zezakeen, urak egin egiten moduan, ez dakidana da hori.

Etxera ailegatu nintzenean, L'Afrodite ritrovata liburuxka maletan sartu nuen, egunen batean oraingo hau idatziko nuen esperantzan. Gero, biharamunari begiratu, etxearen ekialdeko pertsianak jaitsi eta mendebaldekoak igotzeko maniobrari ekin nion. Bigarren alde horretan balkoia dagoenez, hantxe lotu nintzen. Euria zekarren. Itxura batean behintzat.

Berriro etxe barruan, telebista piztu nuen, eta, afari xume bat prestatu artean, Ferragostoko berriek entretenitu ninduten. Harik eta Italiako teleberrietan ohikoa dena gertatu zen arte. Carabinierien ekintza heroikoa. Bero galdetan hiltzekotan izana zen norbait nola salbatu zuten.

Egunero ateratzen zituzten horiek telebistan. Egunero eta albistegi oro. Aingeruen pare, karabineroak. Alferrik zen horretatik alde egiten saiatzea. Albistegi denetan, azken berrietako batean, aingeruak. Zapping egitea erabaki nuen.

Hartan nengoela, haizea altxatu zuela sumatu nuen. Balkoira irten nintzen. Aurreko etxean pertsianen mugimendua ikusi nuen eta, bazen norbait han. Eta inguruko beste batzuetan berdin. Oporretan joan gabe geratuak zirenak.

Telebistaren aurrera itzuli nintzen. Eliza Katolikoaren kanala hautatu nuen. Aita santu baten laudoriozko biografia ematen ari ziren. Ez dakit Joan XIII ala Paulo VI.aren biografia zen. Haxix pixka bat erretzea erabaki nuen, ohean Bibliako pasarte hura berrikusi beharko nuela gogoan. Oii, Eriekin orduan hitz egiterik izan banu, bederen.

Nik ere ez, bainugelan sartu da oraingoan, eta handik hitz egin dit; ebanjelioetan begiratu duzu, ala?

Begiratu egingo dut, erantzun dut, emakumearen bigarren dutxaren hotsek nire hitzek estaltzen ote duten igarri izanik. Ez dutxatzea erabaki dut. Usaina ez galtzarren.

Bidali egidazu emailez zerbait, esan dit, gelako atea ixtean.

Zertaz?

Kristoren suizidioaz. Interesgarria dirudi.

Fededuna zara?, galde egin diot.

Ez, erantzun dit.

Ni ere ez.

ⁱ Azken afaria.

ⁱⁱ Izokia.

ⁱⁱⁱ Ohea.